

MAILAREN DEFINIZIOA

Oinarrizko mailak Hizkuntzen erreferentzi marko europar bateratuko A2 gaitasun mailaren ezaugarriak izanen ditu.

Oinarrizko maila honen helburu nagusia da ikasleari gaitasuna ematea hizkuntza behar adinako moduan erabiltzeko, dela produkzioan dela hartzean, bai ahoz eta bai idatziz, testu laburrak berehalako batean ulertu eta produzitu behar diren eguneroko egoeretan, hainbat erregistrotan eta hizkuntza estandarrean, gai orokorren alderdi oinarrizkoen gainean, maiz erabiltzen diren egiturak eta lexikoa erabiliz.

HELBURU OROKORRAK

1. IKASLEA GIZA ERAGILE DEN HEINEAN

1.1. Oinarrizko beharrekin zerikusia duten eguneroko transakzioak burutzea

- 1.1.1. Transakzioak burutzeko beharrezkoa den informazioa eskuratzea. Informazio hori (datu zehatzak, jarraibideak eta orientabideak) iturri erraz, ohiko eta oso eskuragarrietatik lortutakoa izango da, edo laguntzeko prest dauden pertsonengandik.
- 1.1.2. Transakzioek eskatzen dituzten komunikazio-trukeetan parte hartzea; hau da, joan behar duen leku eta pertsonengana joko du, betiere, zailtasunaren aurrean, solaskideak laguntza ematen badio (poliki hitz eginez eta ahoskatuz, birformulatuz...)
- 1.1.3. Eman zaizkion zerbitzuengatik poza edo nahigabea modu erraz eta laburrean adieraztea.

Transakzioek honako ezaugarriak dituzte:

- Oinarrizko zerbitzuak erabiltzearekin eta eguneroko beharrak asetzearekin zerikusia dute; hala nola elikagaiak, arropa eta ostatua eskuratu, gestio errazak burutu edo bidaietan, adibidez, gerta daitezkeen egoerei aurre egin (lekuren batera iristeko jarraibideak, ordutegiak eskatu...)
- Transakzioak denda, postetxe, bankuetxe, osasunetxe, garraiobideetan (autobusak, trenak, taxiak)... gertatzen dira.
- Transakzioek gestio oso errazak, ohikoak eta aurreikus daitezkeenak egitea eskatzen dute: oinarrizko kontsumo-ondasunak erosi, zalantzak argitu, arazo errazak konpondu edo zailtasun gutxiko jarduera komunikatiboa behar duten egoera edo ezustekoei aurre egin (datu pertsonalak eman, mina duela esan...).

Mailaren deskribapen orokorra

A2 maila duten ikasleak/ek:

- Baliabide linguistiko eta ez linguistiko errazak dituen zerrenda mugatua erabiltzeko gai dira. Bertan oinarritzko egitura sintaktikoak (buruz ikasitako esapide eta esaldiak biltzen dituztenak), eta gizarteko arau eta euskaldunon munduaren kultur erreferenteei buruzko ezagupen oso orokorrak daude;
- Beren gaitasun, trebetasun eta jarrerak baliatzen dituzte zailtasunari aurre egiteko;
- Ulertzeko moduan eta argi komunikatzen dira, nahiz eta doinua euskalduna ez dela, eta gutxitan etenak eta gaizki-ulertuak gertatzen direla nabarmena izan;
- Eguneroko oinarritzko biziraute egoeretan moldatzen dira: eskatu eta eskaerei erantzuten diete, oinarritzko informazioa lortzen dute denda, bankuetxe, postetxe, garraiobide eta abarretan, eta behar dituzten kontsumo-ondasunak eta zerbitzuak erosten dituzte;

1.2. Inguru sozialik hurbilenean elkarreraginean parte hartzea

- 1.2.1. Integratuta dagoen komunitatean aurreikus daitezkeen eguneroko egoera sozialetan besteekin parte hartzea.
- 1.2.2. Eguneroko jarduera, gai pertsonal (familia, bizilekua, zaletasunak, eta abar.), gustatu eta interesatzen zaizkion gauzei buruz informazioa trukatzeko.

Elkarreraginek honako ezaugarriak dituzte:

- Inguru sozialik hurbilenean gertatzen dira.
- Ikasleari giza komunitate handiago edo txikiago batean integratzen laguntzen diote.
- Elkarreraginak ikaslearen inguru hurbilenean dauden eguneroko gaiei buruzko informazioa trukatzeko eta gizarteko arau jakin batzuk betetzeko oinarritzen dira.

Mailaren deskribapen orokorra

A2 maila lortzen duten

ikasleak/ek

- Gizarteko oinarritzko arauak, hala nola funtsezko eta ohiko gizalege-arauak edo tratamendu eta agurtzeko esapideak eta abar egoki erabiltzeko gai dira;
- Elkarrizketa hasi, jarraitu eta bukatzeko, buruz ikasitako esapideen zerrenda laburra erabiltzeko gai dira. Era berean, elkarrizketaren gaia zein den antzemateko gai dira, solaskideek poliki eta argi hitz egiten badute;

- Solaskideen arreta erakartzeko gai dira, eta, doinua arraro samarra izan badaiteke ere, eta etenak, hasierako zalantzak eta birformulazioa gorabehera, esan nahi dutena ulertaraziko dute, betiere, beharrezkoa izanez gero, solaskideak laguntzen badie.

1.3. Ikaslearen inguruarekin eta eguneroko beharrekin zerikusia duten testu idatzi nahiz ahozkoekin moldatzea

- 1.3.1. Testuak testu-generoarekin erlazionatzea. Horrela, testuen egituraketa, informazio mota, testu-era eta abar aldeztatik jakin dezakete.
- 1.3.2. Testuak dakarren ageriko informazio garrantzitsua aukeratu eta jasotzea.
- 1.3.3. Berariazko informazioa, erraza, laburra eta aurreikus daitekeena transferitzea.

Testuek honako ezaugarriak dituzte:

- Testuak 1.1. eta 1.2. puntuetako helburu orokorretan deskribatzen diren egoeretakoko garrantzitsuak dira.
- Testuek egituraketa argia eta erraza dute, bai formari bai mamiari dagokionez.
- Testuek duten informazioa laburra eta agerikoa da. Horregatik esanahia inferitu eta interpretatzeko, ez dute oso ahalegin handia eskatzen.
- Testuen ulermenak ez du eskatzen ezagutzen ez den kulturaren oso murgilduta egotea.
- Testuek, ahozkoak direnean, zarata gutxi dute, ahoskera estandarra edo estandarretik oso hurbil, eta poliki ahoskatuak.

Mailaren deskribapen orokorra

A2 maila lortzen duten

ikasleak/ek

- Informazio erraza duten testu laburrei (foiletoak, formularioak, abisuak...) baita komunikabideek sortzen dituztenei ere (prentsa idatzia, telebista...) aurre egiteko gai dira, betiere testua oso hondaturik ez badago eta soinuak distortsiorik ez badu.
- Aurreko puntuan aipatutako testuak ulertu ahal dituzte, eta hitz edo esaldi-gakoez baliatuz, ideia nagusiak eta gai-aldaketak atzeman ditzakete.
- Birformulazio eta errepikapenen beharra maiz izaten dute, eta ulermena ziurtatzeko irudien laguntza izaten dute.

2. IKASLEA KULTURARTEKO HIZTUN DEN HEINEAN

Kultur aniztasunaren ikuspegia

- 2.1. Kultur aniztasunaz eta norberaren identitateak gainerako kulturak ulertzeko moduan izan dezakeen eraginaz ohartzea.
- 2.1.1. Kultura guztiek beren artean antzekoak edo ezberdinak izan daitezkeen osagai komunak (pertzepzioak, baloreak, portaerak...) dituztela ohartzea.
- 2.1.2. Norberaren identitate kulturala ulertzeko moduak (sinesmenak, galbehe kulturalak, aurreiritziak, estereotipoak eta topikoak, jarrera etnozentrikoak...) errealitate berrira hurbiltzean norainoko eragina duela konturatzea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Beste kultura batzuetara hurbiltzea eragozten duten aurreiritziak, estereotipoak eta sinesmenak zein diren jakin eta aurre egiteko asmoz, ikasleek, behar diren estrategiak martxan jarritz, ezagupenak, jarrerak eta trebetasunak bereganatu eta abiarazi.
- Ikasleak behaketa eta konparazio-prozedurak erabiltzen ohitaraztea. Prozedura hauei esker, kultura berriekin harremanetan jartzeko orduan, ikasleek aurreiritzi, estereotipo eta baldintzatzaileak gabeko ikuspegi kultural zabala bereganatuko dute.
- Taldeko ikaskideekin esperientziak trukatzeko, eta irakasleak nahiz ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak betetzea.

Jarreraren eta alderdi afektiboaren zeregina

- 2.2. Ikaslea beste kultura batzuetara orokorrean, eta euskal kulturara bereziki hurbiltzera daramaten motibazioak, jarrerak eta alderdi afektiboak bere buruarengana aurkitzea.
- 2.2.1. Ikaslea beste kultura batzuetara orokorrean, eta euskal kulturara bereziki hurbiltzera daramaten itzaropenak, desioak, interesak...identifikatzea.
- 2.2.2. Beste kultura batzuen aurrean orokorrean, eta euskal kulturaren aurrean bereziki, norainoko sentsibilitatea eta ikuspegi zabala duen ohartzea.
- 2.2.3. Anbiguetatea ez onartzeak eta estres kulturalak ikas-prozesuetan eta kultura ezberdinen arteko komunikazioan izan dezaketen ondorioak identifikatu eta baloratzea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Behatu, hausnartu eta aztertze prozedurak ohitzea, beste kultura batzuekiko interesa, jakinmina, ikuspegi zabaltasuna, empatia eta sentsibilitatea indartzeko, eta hizkuntzen nahiz kulturen arteko gatazkak arintzeko.

- Alde batetik, ezagunaren eta berriaren arteko kontrasteak, eta bestetik, beste kultura batzuetara orokorrean eta euskal kulturara bereziki pixkanaka hurbiltzean oinarrituko dira norberaren jarrerak eta motibazioak.
- Taldeko ikaskideekin esperientziak trukatzeko, eta irakasleak nahiz ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak betetzea.

Kultur erreferenteak

2.3. Herriko kultur erreferenterik ezagunenak zein diren jakitea.

- 2.3.1. Herriko alderdi kulturei buruzko oinarrizko informazioa lortzea. Alderdi kultural hauek orokorrenak eta ezagunenak izango dira ; hala nola ezaugarri geografiko, demografiko eta ekonomiko nagusiak.
- 2.3.2. Herri honetako entzute handiko gertaerak eta kultur ondasunak zein diren jakitea, azaletik bederen ; hala nola artistak, artelanak, gertaera historikoak, nolabaiteko oihartzun sozial edo politikoa izan duten pertsonak...

3. IKASLEA IKASTUN AUTONOMO DEN HEINEAN

Ikas-prozesuaren kontrola

3.1. Bere ikas-prozesuaren kontrola norainokoa den ohartzea.

3.1.1. Ikas-prozesu autonomoa zer arlotan eta noraino burutzen duen ohartzea.

3.1.2. Hizkuntzak ikasteko orduan, ikaslearen beraren profila zehazten duten ezaugarriak identifikatzeko.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Ikasleak bere ikas-prozesuaz hausnarketa egiteko, eta berau ebaluatzeko baliabideak garatu behar ditu. Baliabide hauei esker, ikas-prozesuaren aurrean dauden modu ezberdinak identifikatu eta baloratuko ditu. Era berean, ikas-prozesua baldintzatu ahal duten alderdiak (jarrerak, perzepzioak, sinesmenak, joerak, ikas-estiloak) identifikatuko ditu, eta gainera alderdi horiek guztiak kontrolatu ahalko ditu.
- Taldearekin esperientziak trukatzeko.
- Irakasleak eta ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak beteko dituzte, beharrezkoak diren ezagutzak, baliabideak eta jarrerak ikas-prozesuan uztartu eta garatzeko.

Ikas-prozesua planifikatzea

- 3.2. Ikasleak, azaletik bederen, argi izan behar du noraino ailegatu nahi duen euskara ikastean, eta noraino erabili nahi duen hizkuntza hau (euskara). Era berean, bere ikas-prozesuaren ibilbide hori erlazionatu beharko du programazioaren helburu, edukin, metodologia eta ebaluazioarekin.
- 3.2.1. Ikasleak ikasteko eta euskaraz komunikatzeko beharrak identifikatuko ditu, eta noraino ailegatu nahi duen, azaletik bederen, argi izango du.
- 3.2.2. Ikas-prozesuan ikasleak berak ezarritako helburuak eta euskararen erabilera erlazionatuko ditu programazioan finkatzen diren helburu eta edukiekin.
- 3.2.3. Gela barruan nahiz kanpoan burutzen diren zereginak (pedagogikoak eta mundu errealarari dagozkionak) nola eraman behar diren aurrera konturatzea.
- 3.2.4. Autoebaluaziorako prozedura eta baliabideetara ohitzea. Eta ebaluatzeke beste era batzuetatik (irakasleak egiten duen ebaluazioa, ebaluazio kooperatiboa...) ateratzen diren emaitzak konparatzea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko beharrak, desioak eta motibazioak aztertzea.
- Ikasleak berak hizkuntzak orokorrean, eta euskara bereziki, nola ikasten dituen hausnarketa egitea.
- Ikasleak euskara ikasteko eta erabiltzeko egoerak, eremuak... etengabe bilatu eta sortzea.
- Ikasleak izan dituen aurrerapenen erregistroa eramatea.
- Gainerako taldekideekin esperientziak trukatzeko.
- Ikasleak eta ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak betetzea.

Baliabideen kudeaketa

- 3.3. Ikasteko dauden baliabideak ikasleak berak kudeatu ahal dituela ohartzea.
- 3.3.1. Bere kasako edo autozuzendutako ikas-prozesuan dauden baliabideak identifikatzea.
- 3.3.2. Bere kasako edo autozuzendutako ikas-prozesua bultzatzeko plangintza batzuekin probak egitea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Ikasleak bere kasako edo autozuzendutako ikas-prozesua aurrera eramateko dituen baliabide eta aukerak aurkitzea; hala nola kontsultarako material eta iturriak, euskara ikasteko dauden egoeretan murgiltzea.
- Euskara ikasi eta erabiltzen ematen den denborari ahalik eta probetxu gehien ateratzeko bideak erabiltzen ohitzea.

Ikasteko dauden moduen erabilpen estrategikoa

3.4. Estrategia hitza zer den ohartu, eta ikasbideekin probak egitea, betire jarraibide batzuk emanda.

3.4.1. Estrategia hitza zer den jakitea.

3.4.2. Edukiak bereganatzeko dauden bide estrategikoekin probak egitea, betiere jarraibideak emanda.

3.4.3. Klaseko lana burutzeko momentuan, prozedura metakognitiboekin (planifikazioa, egitea, ebaluazioa eta zuzenketa) probak egitea, betiere jarraibideak emanda.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Ikas-prozesuan zehar martxan jar daitezkeen estrategiak erabili eta garatzeko dauden hausnarketa, introspekzio eta azterketetarako prozeduretara ohitzea.
- Edukiak bereganatzeko prozedurekin probak egitea.
- Estrategiak erabili eta gaitasunak garatzera daraman prozesu kontzientea (planifikazioa, egitea, ebaluazioa eta zuzentzea) aurkitu eta probatzea.
- Gainerako taldekideekin esperientziak trukitzea.
- Ikasleak eta ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak betetzea.

Alderdi psikoafektiboen kontrola

3.5. Ikas-prozesuan eragiten duten alderdi psikoafektiboak identifikatzea, eta era kontzientean kontrola daitezkeela ohartzea.

3.5.1. Hizkuntzak ikasteari dagokionez, ikasleak bere buruaz duen iritziaz jabetzea.

3.5.2. Ikas-prozesuan eragiten duten alderdiez (motibazioa, egonezina, arriskuak hartzeko ahalmena, akatsen aurrean duen jarrera...) ohartzea, eta alderdi hauek era kontzientean kontrolatzeko probak egitea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Introspekzio, hausnarketa, azterketa eta abarretarako prozeduretara ohitzea. Horrela, hizkuntza baten ikasle eta erabiltzaile den heinean, ikasleak bere buruaz iritzi ona izango du. Era berean, ikas-prozesuan eragina duten barne nahiz kanpo- estimuluak indartuko ditu. Eta arriskuak hartzeko ahalmena, nahiz eta akatsak ezinbestean egin, garatuko du.
- Gainerako taldekideekin esperientziak trukatzea.
- Ikasleak eta ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak betetzea.

Taldearekin elkarlanean aritzea

3.6. Taldekideekin eta irakaslearekin elkarlanean aritzea, taldean lankidetzat, amultsutasun eta konfiantza-erlazioak sortu eta iraunarazteko.

3.6.1. Taldearen barruan lan egiteko, giro ona sortu eta iraunarazten duten mekanismoak lortzea.

3.6.2. Taldeka eraginkotasunez lan egiteko bideak urratzea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Sentimentuak, sinesmenak eta pertzepzioak taldearekin trukatzea.
- Taldekideen ekarpenak baloratzea.
- Egin behar den lana eraginkortasunez egin ahal izateko moduetara ohitzea.
- Ikasleak eta ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak betetzea.

TREBETASUN BAKOITZAREN HELBURU OROKORRAK ETA BERARIAZKOAK

A) Ahozkoaren ulermena.

- Helburu orokorra:

Ahozko testu labur, argi eta errazen zentzu orokorra ulertzea, ahoz nahiz baliabide tekniko bidez (telefonoa, irratia eta abar) transmitituak eta geldiro ahoskatuak,

erregistro formalean nahiz neutroan, betiere entzumen baldintzak onak badira eta mezua distorsionatua ez badago.

- Berariazko helburuak:

1. Puntu nagusiak eta xehetasun garrantzitsuak ulertzea jarraibideak, instrukzioak edo bestelako informazio bat daukaten mezu edo iragarki publikoetan.
2. Kudeaketa eta transakzio errazetan zer esaten den ulertzea, betiere konfirmazioa eskatzeko modua badago; adibidez jatetxe batean eta abar.
3. Parte hartzen den solasaldietan esaten denaren puntu nagusiak eta funtsezko informazioa ulertzea, betiere konfirmazioa eskatzen ahal bada.
4. Zure aurrean gertatzen diren solasaldien zentzu orokorra eta berariazko informazioa ulertzea eta gaia noiz aldatu den antzematea.
5. Telebista programetako zentzu orokorra eta funtsezko informazioa ulertzea, hala nola eguraldi aurreikuspenak, teleberriak, iruzkinak irudi baten lagun doazenean.

B) Ahozko adierazmena eta elkarreragina.

- Helburu orokorra:

Ahozko testu laburrak produzitzea, bai aurrez aurreko komunikazioan bai telefonoz nahiz beste baliabide teknikoen bidez, erregistro neutro batean, eta modu ulergarrian komunikatzea, nahiz atzerriko doinua, etenak eta zalantzak bistakoak izan eta gauzak errepikatu, parafrasiak egin eta komunikazioa mantentzeko mintzakideen laguntza beharrezkoa izan.

- Berariazko helburuak:

1. Gai ohikoen gaineko komunikatuak eta aurkezpen laburrak egitea, aurrez entseaturik, eta entzuleen galdera labur eta errazei erantzutea.
2. Kudeaketa eta transakzio erraz eta egunerokoetan moldatzea; adibidez jatetxeetan eta dendetan.
3. Elkarrizketa batean parte hartzea -adibidez lan elkarrizketa- eta informazio pertsonala emateko gauza izatea.
4. Komentarioen aurrean erreakzionatzea edo gai ohikoen gainean ideiak adieraztea.
5. Harreman soziala ezarri, informazioa trukatu eta eskaintzak nahiz iradokizunak egin edo instrukzioak ematen diren solasetan parte hartzea.

C) Irakurriaren ulermena.

- Helburu orokorra:

Zentzu orokorra, funtsezko informazioa, puntu nagusiak eta xehetasun garrantzitsuak ulertzea egitura sinple eta argiko testu laburretan, erregistro formal edo neutro batean. Testu horiek eguneroko bizitzaren gainekoak izanen dira.

- Berariazko helburuak:

1. Jarraibideak, instrukzioak eta oinarrizko informazioa ulertzea kale, denda, jatetxe, garraibide eta bestelako zerbitzu eta toki publikoetako karteletan.
2. Ohar pertsonaletan eta iragarki publikoetan ulertzea eguneroko bizitzako jarduera eta egoerekin lotutako informazioa, jarraibideak eta instrukzioak dauzkaten mezu laburrak.
3. Gutun pertsonal labur eta errazak ulertzea.
4. Gai praktikoen gaineko gutun pertsonal laburrak ulertzea, hala nola eskaera bat berrestea edo beka bat ematea.
5. Funtsezko informazioa ulertu eta berariazko informazioa aurkitzea liburuxka ilustratuetan eta bestelako material informatiboan, hala nola prospektuetan, menuetan, zerrendetan eta ordutegietan.
6. Informazio garrantzitsua identifikatzea kazetaritza testu labur eta errazetan, hala nola gertaerak edo gintzak deskribatzen dituzten berri laburpenetan.

D) Idatzizko adierazmena eta elkarreragina.

- Helburu orokorra:

Testu labur eta egitura errazekoak idaztea erregistro neutro batean, kohesio baliabideak eta ortografiako zein puntuaziozko konbentziorik oinarrizkoenak erabiliz. Testu horiek eguneroko bizitzaren gainekoak izanen dira.

- Berariazko helburuak:

1. Eguneroko bizitzako egoera eta jarduerekin lotutako informazioa, instrukzioak eta jarraibideak dauzkaten oharak eta iragarkiak idaztea eta mezu errazak hartzea.
2. Gutun pertsonal errazak idaztea, eskerrak eman, barkazioa eskatu edo norbere buruaren gainean edo bere ingurunearen gainean hitz egiteko (familia, bizitzako baldintzak, lana, adiskideak, dibertsioak).
3. Gutun formal errazak eta laburrak idaztea zerbitzu bat eskatu edo informazioa eskatzeko.
4. Inguruko eguneroko bizitzaren alderdien gainean idaztea, adibidez, pertsona baten, toki baten, ikasketako nahiz laneko esperientzia baten gainean.

5. Gertaeren, iraganeko jardueren eta esperientzia pertsonalen gaineko deskripzio oso labur eta errazak idaztea.

Edukiak eta gaitasunak

Hizkuntzak ikasten dituenak hainbat gaitasun garatu behar ditu aipatutako helburu orokor eta berariazkoak iritsiko baditu. Gaitasunok ondoren zerrendatzen dira banakako ataletan, nahiz eta komunikazio egoera benetakoetan denak batera gauzatzen diren. Horregatik, ikasketa esanguratsua izan dadin, proposatzen diren komunikazio ataza eta jarduera guztietan integratu behar dira.

1. Gaitasun orokorrak.

1.1 Eduki nozionalak.

Haietatik, dagozkien azpikategoriak aterako dira, maila bakoitzerako behar diren hizkuntza adierazleekin.

1.1.1. Entitatea.

- a) Entitateak adieraztea: identifikazioa, definizioa.
- b) Erreferentzia:
 - Deixi mugatua: izenordain pertsonalak; adjektibo posesiboak; izenordain posesiboak; artikulua mugatuak; izenordain galdegileak; adjektibo galdegileak; adjektibo eta izenordain erakusleak; izenordain erlatiboak; tokizko nahiz denborazko adberbioak.
 - Deixi mugagabea: artikulua mugagabeak, izenordain mugagabeak; maiztasun adberbioak; erdideiktikoak.

1.1.2. Tasunak.

- a) Existentzia / inexistentzia.
- b) Kopurua eta maila: numeroa: singularra / plurala.
Kardinalak (lau zenbaki). Ordinalak (bi zenbaki).
- c) Nolakotasuna:
 - Ezaugarri fisiko eta pertsonalak: forma; tamaina; ikusgarritasuna; hautemangarritasuna; zaporea; usaina; testura; kolorea; adina; egoera fisikoa; irisgarritasuna; materiala; izaeraren ezaugarriak.
 - Balorazioak: balioa, prezioa; kalitatea; onargarritasuna; egokitasuna; komenigarritasuna; zuzentasuna; gaitasuna; garrantzia; normaltasuna; zailtasuna.

1.1.3. Erlazioak.

- a) Toki erlazioak:
 - Espazioan erabat kokatzea: lokalizazioa.
 - Espazioan erlatiboki kokatzea: lokalizazio erlatiboa eta distantzia.
 - Mugimendua: nondik, nora eta norainotasuna.
- b) Denbora erlazioak:
 - Denboran erabat kokatzea: iraupena, maiztasuna, behingo gertaera eta sekuentzia.
 - Denboran erlatiboki kokatzea: aldibereko, lehenagoko eta ondorengotasuna.
- c) Egoerak, jarduerak, prozesuak, errealizazioak:
 - Denbora, aspektua eta modalitatea.

- Parte-hartzaileak eta haien arteko harremanak (posesioa, egintzak eta gertaerak).
- d) Erlazio logikoak: aurkaritza, konjuntzioa, disjuntzioa, kausa, baldintza, helburua, ondorioa, konparazioa.

1.2. Eduki soziokulturalak.

Ikasleak ikasten duen hizkuntzan hitz egiten duten erkidegoen gizarte eta kulturaren gaineko ezagupen bat beretu beharko du, horretan batere gaitasunik ez izateak askotan komunikazioa trabatzen baitu. Alderdi hauek garatzeko erabiltzen diren lexiko eta egiturak oinarritzko mailaren helburuen araberrakoak izanen dira.

Eduki hauek ez dute zertan nahitaez programazioaren zati esplizitua izan, gehienak arlo tematiko desberdinen osagai gisa agertuko baitira, arlo horiekin guztiekin nahasten baitira. Horrenbestez, arreta jarri beharko zaie material didaktikoak itxuratzerakoan.

Maila honetan ikasten den hizkuntzaren kulturari eta gizarteari dagozkion honako arloak sartzen dira:

Eguneroko bizitza:

- Orduak eta jateko ohiturak.
- Gastronomia: plater tipikoak.
- Lanarekin lotura duten orduak eta ohiturak.
- Ospakizun, zeremonia eta festa aipagarrienak.

Aisia jarduerak:

- Zinearen mundua.
- Kirol tipikoak.
- Kirol gertaerak.
- Komunikazio bideak.

Giza eta gizarte harremanak:

- Familia bizitzako aztura eta ohiturak.
- Familia barrego, belaun barrego eta lanbideko harremanak.
- Gizarte taldeen arteko harremanak.
- Administrazioa eta beste instituzioak.

Lan eta bizitza baldintzak:

- Lan munduaren atarian.
- Lana bilatzea.
- Hezkuntza.
- Gizarte segurantzaz.
- Osasun eta higieneko ohiturak.

Balioak, sinesmenak eta jarrerak:

- Oinarritzko balio eta sinesmenak.
- Tradizio nagusiak.
- Umore zentzuaren ezaugarri oinarritzkoak.
- Arte eta kulturako erreferente esanguratsuak.

Gorputz hizkuntza:

- Keinuak eta posturak.
- Hurbiltasuna eta ikusizko kontaktua.

Gizarte konbentzioak:

- Portaeraren gaineko konbentzio eta tabuak.
- Gizalege arauak.

Oinarrizko geografia:

- Klima eta ingurumena.
- Hizkuntza horretan hitz egiten duten herrialde nagusiak eta hiri ezagunak. Geografiak hizkuntzan duen eragina: hizkuntzaren aldaeren sarrera oinarrizkoa.

2. Komunikazio gaitasunak.

2.1. Hizkuntza gaitasunak.

2.1.1. Eduki lexiko-semantikoak.

Oinarrizko mailan, lexikoa eta lexikoa egoki erabiltzea honako arlo tematikoak kontuan hartuta garatuko dira:

- a) Identifikazio pertsonala: eremu pertsonal eta publikoan jokatzeko behar diren datu pertsonalak. Adiskide zein ezagunekin eta atzerriko herrietara egindako turismo bisitetan.
- b) Etxebizitza, etxea eta ingurua: etxea, hiria, landa, herrialdea.
- c) Eguneroko bizitzako jarduerak: eguneroko errutina, lanak eta lanbideak, askotariko jarduerak.
- d) Denbora librea eta aisia: zaletasunak, jokoak eta kirola, txangoak, jarduera kulturalak, irratia eta telebista, prentsa idatzia, festak, jatetxeak, tabernak, estadioak.
- e) Bidaiak: garraioak, geltokiak, aireportuak, landa, hondartza, mendia, turismoa, oporrak.
- f) Giza eta gizarte harremanak: familia, adiskideak, ezagunak, elkarretaratzeak.
- g) Osasuna eta gorputzaren zainketa: ajeak, istripuak, kontsultak.
- h) Hezkuntza eta prestakuntza.
- i) Erosketak eta jarduera komertzialak: dendak, almagazak, merkatuak, bankuak.
- j) Elikadura: dietak, janari tipikoa, janari osasuntsua, janari zaborra.
- k) Ondasun eta zerbitzuak: garraioak, osasuna eta abar.
- l) Hizkuntza: ikasten den hizkuntzak munduaren testuinguruan zer toki hartzen duen.
- m) Komunikazioa: telefonoa, gutunak, posta elektronikoa, Internet.
- n) Klima, eguratsen baldintzak eta ingurumena: urtaroak, eguratsen fenomenoak, tenperatura.
- ñ) Zientzia eta teknologia.

2.1.2. Gramatikako edukiak.

1. Gramatikako edukiak
- 1.1. Izen sintagma.

1.1.1. Gunea: substantiboa eta izenordaina.

- Substantiboa:

- .Motak: zenbakarriak / zenbakaitzak; bizidunak / bizigabeak.
- .Generoa: oposizio lexikoarekin (gizon / emakume); bi sexuak adierazteko izen elkartuak erabiltzea (anai-arrebak, aitona-amonak).
- .Numeroa: singularra; plurala / plural hurbila (guztioak, ikasleok) mugagabea. Mugagabearen erabilerak.
- .Kasua: kasu gramatikalak (absolutiboa, partitiboa, ergatiboa eta datiboa) singular/pluralean, mugagabea eta bukaera -a organikoa, kontsonantea eta diptongoa duten hitzetan.
- .Gradua: positibo absolutua (etxe) eta erlatiboa (etxetxo, etxetzar).

- Izenordainak:

- .Pertsonalak: neutroak (ni).
- .Posesiboak: neutroak (nirea).
- .Erreflexiboak: noren + burua.
- .Erakusleak.
- .Mugagabeak.
- .Galderazkoak/ harriidurazkoak.
- .Elkarkariak: elkar.

1.1.2. Gunearen aldaketa.

- Eratorpena (aurizkiak: desberdintasun, ezberdintasun; atzizkiak: hizkuntza) eta elkarketa (seme-alabak, jarleku, kale garbitzaile).
- Determinatzaileak:
 - .Artikuluak: mugatua eta mugagabea.
 - .Erakusleak.
 - .Zenbatzaileak: mugatuak (kardinalak, ordinalak), mugagabeak (zenbat, batzuk, zenbait, asko ...) eta orokortzaileak (dena, guztia, oso).
- Aposizioa (Bidasoa ibaia).
- SAdj bidezko osagarria (hitzeke gizona, indar handiko pertsona, bi urteko umea).
- Postposizio sintagma baten bidezko osagarria (mahai gainean).
- Erlatibozko perpausaren bidezko osagarria (-(e)n, -tako / -(r)iko).

1.1.3. Osagaien tokia eta komunztadura fenomenoak.

(Det.+) (SAdj.+) (Erlatibozko perpausa+) N (+SAdj.) (+Det.).

1.2. Adjektibo sintagma.

1.2.1. Gunea: adjektiboa.

- Numeroa: singularra / plurala.
- Generoa: kasu bereziak (tontoa / tuntuna).
- Kasua: edutezko genitiboa (Noren) eta tokizko genitiboa (Nongo) singular eta pluralean, mugagabea eta bukaera -a organikoa, kontsonantea eta diptongoa duten hitzetan.
- Gradua:
 - .Positibo absolutua (lodi) eta erlatiboa (lodikote).
 - .Konparatiboa eta superlatiboa (-ago, -egi, -en).

1.2.2. Gunearen aldaketa honakoen bidez:

- Genitiboa elidituz (urte amaiera).
- Adjektibo elkartu eta eratorriak (sudur-luze, ulerterraz, goiztiar).
- Zenbatzaileak adjektiboaren ezker zein eskuinetara (hagitz polita, txiki samarra).
- Marka fonetikoak: xuhur, pollitta, goxo, txuri, edder.
- Errepikatzea (txiki-txikia).

1.2.3. Osagaien tokia eta komunztadura fenomenoak.

(Modifikatzailea+) N (+Modifikatzailea) + Artikulua: oso polita; alfer samarra.

1.3. Aditz sintagma.

1.3.1. Gunea: aditza.

- Sailkapena:
 - .Aditz jokatuak.
 - Sintetikoak: Nor sistema (egon, ibili, etorri, joan); Nor-nork sistema (nor 3. pertsonakoa) (eduki, ekarri, eraman, jakin, esan).
 - Konposatuak edo perifrastikoak: Nor sistema; Nor-nori (nor 3. pertsonakoa); Nor-nork (nor 3. pertsonakoa); Nor-nori-nork eta inpertsonalak.
 - .Aditz jokatu gabeak.
 - Partizipioak: -O, -ta, -(r)ik.
 - Nominalizazioa: -t(z)ea, -t(z)en ...
 - Gerundioa: -t(z)en, -z, -ka.
- Aspektua:
 - .Aspektu bukaerarik gabe (-O), perfektiboa (-tu), inperfektiboa (-t(z)en), geroaldikoa (-tuko, -en), puntukaria.
- Denbora:
 - .Orainaldia, lehenaldia eta geroaldia.
- Modua:
 - .Indikatiboa.
 - .Agintera: Nor (zaitez, zaitezte); Nor-nork (ezazu, ezazue, itzazu, itzazue).
 - .Aditz lokuzioak eta berariazko forma perifrastikoak:
 - Beharra: behar izan, beharrezkoa da ... -t(z)ea.
 - Eginbidea: behar izan, adberbiozko lokuzioak (zutik denok!, alde hemendik!), forma inpertsonalak (hau ez da ukitzen!).
 - Gaitasuna eta baimena: ahal izan, ezin izan.
 - Debekua: debekaturik dago ... -t(z)ea, ezin izan.
 - Asmoa: behar izan, nahi izan.

1.3.2. Osagaien tokia eta komunztadura fenomenoak.

- Galderazko perpausetan: izenordain galdegilea + aditza.
- Ezezkako perpausetan:
 - .Aditz sintetikoak: (SN) + ez + V + (SN).
 - .Aditz konposatuak: (SN) + ez + laguntzailea + (SN) + erroa.

1.4. Adberbio sintagma.

1.4.1. Gunea: adberbioa eta adberbiozko lokuzioak.

- Adberbio motak:

.Sailkapen formala:

Bakunak (atzo).

Eratorkiak (atzizkiak: -oro (-ero) -ki, -ka, -ro, -ik). Elkartuak (herenegun...).

.Sailkapen semantikoa:

Denbora eta tokizkoak.

Moduzkoak eta intentsiboak (oso, nahiko, samar...).

Iritzizkoak.

.Kasuaren arabera sailkapena: inesiboa (non / norengan), helburuzko adlatiboa eta hurbilduzkoa (nora(ntz) / norengana(ntz)), adlatibo terminala (noraino / norenganaino), ablatibo (nondik / norengandik), destinatiboa, sozietiboa, motibatiboa, instrumentala eta prolatiboa singular eta pluralean, mugagabea eta bukaera -a organikoa, kontsonantea eta diptongoa duten hitzetan.

- Adberbiozko lokuzioak (batez ere, noizean behin ...).

1.4.2. Gunearen aldaketa.

Errepiatzea (zabal-zabalik, plisti-plasta ...).

1.5. Sintagma postposizionala.

1.5.1. Gunea.

- Postposizioak kasu hauekin:

.Absolutua edo partitiboa (dirurik gabe).

.Genitiboa (berrien arabera).

.Datiboa (zuri esker).

.Instrumentala (umeez gain).

.Inesiboa (mendian zehar).

.Adlatiboa (gora begira).

1.5.2. Gunearen aldaketa.

1.5.3. Osagaien tokia eta komunztadura

fenomenoak. (Kasua+) postposizioa (+kasua).

1.6. Perpaus bakuna.

1.6.1. Perpaus motak:

- Perpaus deklaratuak: baiezkakoa eta ezezkakoa.

Galdegaiak. Hitz hurrenkera markatua eta markatu gabea.

- Galderazko perpausa:

.Erabatekoa ezta partikularekin.

.Partziala.

.Disjuntiboa ala partikularekin.

- Haridurazko perpausa, bai, erakusleak, ze(r), zein, nolako / zelako eta interjekzioak erabiliz.

- Aginduzko perpausa.

1.6.2. Osagaien tokia eta komunztadura.

Aditzarekin pertsonarekin eta numeroarekin komunztadura duten osagaien elipsia.

1.7. Perpaus konposatua: harreman logikoen adierazpena.

- Perpaus koordinatuak:
 - .Kopulatiboak: eta juntagailu kopulatiboak; ez... ez..., bai... bai..., ez bakarrik ...ere korrelazioak.
 - .Disjuntiboak: ala, edo; edo... edo..., ala... ala... korrelazioak, juntagailu disjuntiboak
 - .Adbertsatiboak: baina, baizik (eta) juntagailu adbertsatiboak.
 - .Banatzaileak: bata... bestea..., alde batetik... bestetik. korrelazioak.
- Mendeko perpausak:
 - .Substantiboak edo konpletiboak: -(e)la, -(e)nik, nominalizazioa (-t(z)ea, -t(z)eko.); zehar galderak: -(e)n, -(e)n ala ez; partizipioarekin (ez dakit zer egin).
 - .Adjektiboak edo erlatiboak: adizkiak +(e)n; partizipioa +-tako/-riko.
 - .Adberbialak edo zirkunstantzialak:
 - .Helburua: -t(z)era, -t(z)eko.
 - .Kausa: -(e)lako, eta, bait_, zeren (eta).
 - .Baldintza: baldintza erreala.
 - Adizki jokatuarekin: (Baldin) ba + adizki jokatuak: Nor; Nor-nori (nor hirugarren pertsonakoa); Nor-nork (nor hirugarren pertsonakoa); Nor-nori-nork.
 - Adizki jokatu gabeekin: partizipioa + z +gero.
 - .Kontzesioa: Adizki jokatu gabeekin: partizipioa + arren, nahiz eta + partizipioa.
 - .Konparazioa:
 - Nolakotasuna: bezain; baino ... -ago(a).
 - Kopurua: beste; adina; baino ...gehiago; baino gutxiago.
 - .Denbora erlazioak:
 - Lehenago: partizipioa + baino lehen, aurretik.
 - Ondoren: partizipioa + eta gero, ondoren.
 - Berehala: partizipioa + bezain laster/azkar..., partizipioa + eta berehala.
 - Aldi berean: -(e)nean; partizipioa + bitartean.
 - Abiaturua: -(e)netik.
 - Xedea: partizipioa + arte(an).
 - .Moduzkoak:
 - Adizki jokatu gabeekin: partizipioa + bezala.
- Testuaren lokailuak:
 - .Kopulatiboak: ere, gainera, bestalde, behintzat, behinik behin, gutxienez.
 - .Disjuntiboak: bestela, gainerakoan.
 - .Adbertsatiboak: ordea, berriz, aldiz, (bien) bitartean, dena dela, dena den, hala (eta guztiz) ere.
 - .Ondoriozkoak: beraz, hortaz, orduan, hala.
 - .Kausazkoak: zeren, bada.

2. Ortografiako edukiak

2.1. Idazkuntza sistema: alfabetoa.

2.2. Soinuak eta fonemak grafikoki nola adierazi.

- Geminazioa zenbait izen berezitan: digramak .

- (anbiguo, inpaktu).
- 2.3. Maileguak moldatzeko arau ortografikoak.
 - Hitz hasieran: R-ren aurrean bokala (arropa, errege, erloju).
 - Erdian: T epentetikoa (bertso, Bartzelona, defentsa, dantza, poltsa, galtzerdi).
 - Bukaeran: -zio (nozio); -sión: -sio (ilusio); -ón: -oi (balkoi); -ado: -atu (estatu).
- 2.4. Karaktereak bere itxura desberdinetan nola erabiltzen diren: maiuskulak eta minuskulak.
- 2.5. Ortografiako zeinuak.
 - Harridura eta galdera markak perpaus bukaeran bakarrik.
- 2.6. Silabaren egitura. Hitzak lerro bukaeran nola zatitu.
- 3. Eduki fonologikoak
 - 3.1. Bokak soinuak eta fonemak. Diptongoak.
 - 3.2. Kontsonante soinu eta fonemak.
 - Nola ahoskatu maileguetan.
 - Nola ahoskatu .
 - Nola ahoskatu .
 - 3.3. Prozesu fonologikoak.
 - Bustidura: il[l], in[ñ].
 - Epentesia.
 - Ahostuntzea.
 - 3.4. Osagai lexiko bakartuen azentua.
 - Ondareko hitzak eta mailegu moldatuak.
 - 3.5. Azentua eta azentugabetasuna: tonu ereduak sintagman.
 - Monosilaboak, izenordain posesiboak eta aditz konposatuak.
 - 3.6. Fonetika sintagmatikoa: ez naiz [enaiz], ez luke [eluke], ez zara [etzara], ez dut [eztut].

2.2. Gaitasun soziolinguistikoak.

Hizkuntzaren erabilera ardatz duen hurbilketa batean nahitaez ikertu behar da hizkuntzaren dimentsio soziala. Ikasleek hainbat gaitasun soziolinguistiko bereganatu beharko dituzte, dagokion mailan behar adinako trebeziarekin komunikatu ahal izateko. Gaitasun horien artean gizarte harremanetako hizkuntza markatzaileak ezagutu, bereizi eta, hala behar izaten bada, erabiltzea dago: tratamendu formulak, agurrak, gizalege arauak, herri esapideak (errefrauak, modismoak ...) eta erregistro diferentziak (formala, informala, familiakoa, lagun artekoa ...) dialektoak eta azentuak.

2.3. Gaitasun pragmatikoak.

2.3.1. Eduki funtzionalak.

- Egintza asertiboak:

Ezagupena, iritzia, sinesmena eta aierua aditzera ematearekin lotura duten funtzioak edo mintza-egintzak: baieztatu, ukatu, iragarri, sailkatu, deskribatu eta adostasuna nahiz desadostasuna adieraztea, ez dakizula adieraztea, iritzi bat

adieraztea, hipotesi bat egitea, (norbere burua) identifikatzea, informatzea, (norbere burua) aurkeztea, norbaiti zerbait gogoraraztea, zuzentzea, gertaera bat egia ala gezurra den aurrean eta egiaztatzea.

- Egintza konpromisiboak:

Eskaintzarekin, asmoarekin, borondatearekin eta erabakiarekin lotura duten funtzioak edo mintza-egintzak: zerbait egiteko asmoa edo borondatea agertzea, gonbidatzea, zerbait eskaintzea, laguntza eskaintzea, zerbait egiteko zure burua eskaintzea, promes egitea.

- Zuzentze egintzak:

Hartzaileari zerbait eginarazi edo galaraztea helburu duten funtzioak edo mintza-egintzak, mintza-egintza izan nahiz bestelako egintza izan: aholku ematea, abisatzea, jarraibideak ematea edo baimena ematea, ukatzea, eskatzea: zerbait / laguntza / egiaztapena / informazioa / jarraibideak / iritzia / baimena/ norbaitek zerbait egin dezala / uztea, debekatzea, proposatzea eta agintzea, eskatzea.

- Egintza fatikoak eta solidarioak:

Gizarte harremana ezarri edo mantentzea eta beste pertsonen gaineko jarrerak adieraztea helburu duten funtzioak edo mintza-egintzak: gonbit bat onartu edo arbuiatzea, esker ona agertzea, arreta deitzea, ongietorri egitea, agur esatea, onespena adieraztea, norbaiten / zerbaiten gaineko interesa hartzea, deitoratzea, desenkusak eskatzea, errefusatzeko, agurtzea, gonbidatzea, (norbere burua) aurkeztea.

- Egintza espresiboak:

Egoera jakin batzuen aurrean jarrerak eta sentimenduak adierazten dituzten funtzioak edo mintza-egintzak: poza adieraztea, edo zoriona, estimua, enpatia, dezepzioa, interes falta, zalantza, ezjakintasuna, esperantza, nahiagotasuna, satisfazioa eta tristezia, mirespena, sorpresa, interesa, onespena, desonespena.

2.3.2. Eduki eta gaitasun diskurtsiboak.

a) Testu koherentzia.

- Testua eta komunikazio egoera elkarrentzat egokiak izatea.

.Testu mota eta formatua.

.Hizkuntzaren aldaera.

.Erregistroa.

- Testuaren egitura semantikoa.

.Edukia kasurako egokia den eta ongi egituratuta dagoen.

.Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak.

.Testuko osagaien tematizazioa. Testuan bi eduki mota bereizita eta txandakatuta agertzea: informazio lehendik jakina (tema) eta informazio berria (rema).

b) Testu kohesioa.

- Testuaren egitura sintaktikoa:

Loturazko partikulak eta toki-denborazko adberbioak erabiltzea, izenordainak, elipsiak.

- Diskurtsoaren hasiera:
Hasteko osagaiak. Gaiaren sarrera. Tematizazioa eta fokalizazioa: hitzen ordena, partikulak erabiltzea, enumerazioa.
- Idatzizko diskurtsoaren garapena:
 - .Gaiaren garapena:
Gaiari eustea: korreferentzia, elipsia, birformulazioa eta enfasia.
Gaia zabaltzea: adibideak jartzea, errefortzua, kontrastea eta azpi-gaiak sartzea.
Diskurtsoaren bukaera: testu bukaera adieraztea. Testu bukaera.
.Puntuazioa, testu idatziari kohesioa emateko baliabide. Puntuazio zeinuak nola erabili.
- Ahozko diskurtsoari eutsi eta segitzea:
 - .Hitz txanda, hartu, eutsi eta uztea.
 - .Laguntzea, ulertu duzula adieraztea, argibideak eskatzea eta abar.
 - .Intonazioa, ahozko testuari kohesioa emateko baliabide. Intonazio patroiak nola erabili.

c) Testu tipologia.

- Idatzizko testu hartzaileak.
 - .Postalak, gutun pertsonalak eta posta elektronikoa.
 - .Ohar pertsonalak.
 - .Gonbitak.
 - .Zorionak.
 - .Iragarkiak.
 - .Informazio foiletoak eta foileto komertzialak.
 - .Sukalde errezetak. Kartak eta menuak.
 - .Prentsako artikuluak.
 - .Aisiako agenda eta ikuskizun iragarkiak.
 - .Horoskopoa.
 - .Denbora-pasak.
 - .Elkarrizketak.
 - .Kantuak.
 - .Testu literarioak: ipuinak, narrazio laburrak, alegiak, olerkiak.
 - .Irakasleak egindako materiala.
 - .Webguneak.
 - .Jarraibideak.
- Ahozko testu hartzaileak:
 - .Ahozko testuak, irratikoak, megafoniazkoak eta grabatuak (erantzungailuak).
 - .Irakaslearen eta beste ikasleen esplikazioak.
 - .Eremu pertsonaleko solasak.
 - .Toki publikoetako solasak: dendak, medikuaren kontsulta, informazio guneak.
 - .Gertaerak, ohiturak, prozesuak kontatzea ...
 - .Jarraibideak.
 - .Debateak eta eztabaidak.
 - .Elkarrizketa laburrak.
 - .Inkestak.
 - .Iragarkiak.
 - .Berriak.
 - .Lehiaketak.

- .Marrazki bizidunak.
- .Kantuak.

- Testu produktibo idatziak:
 - .Postalak, gutun pertsonalak eta posta elektronikoa.
 - .Ohar eta apunte pertsonalak.
 - .Gonbitak.
 - .Zorionak.
 - .Iragarki txikiak.
 - .Informazio kartelak.
 - .Jarraibideak.
 - .Objektu, toki eta pertsonak deskribatzea.
 - .Gertaerak, ohiturak, prozesuak kontatzea ...
 - .Datu pertsonalak eskatzen dituzten eskabide eta inprimaki errazak.
- Ahozko testu produktiboak:
 - .Eremu pertsonaleko solasak.
 - .Toki publikoetako solasak: dendarak, medikuaren kontsulta, informazio guneak.
 - .Gertaerak, ohiturak, prozesuak kontatzea ...
 - .Objektuak, tokiak eta pertsonak deskribatzea.
 - .Jarraibideak.

Metodologia

Hizkuntza, gure ikuspuntutik begiratuta, "gizarte elkarreragineko" hainbat egoeratan komunikatzeko balio duen sistema da; egoera horietan hizkuntza sistema hori modu esanguratsuan eta testuinguruarekiko egokian erabiltzen da, hainbat ataza aurrera eramateko.

"Egintzara begirako hurbilketa" hau, Hizkuntzen erreferentzi marko europar bateratuak biltzen duena, izanen da hizkuntzak ikasi eta irakasteko erabiliko den metodologiaren ardatza. Ikasketa hori oinarritzeko, berariazko helburuak abiaburu hartuta diseinatutako atazak erabiliko dira. Ataza horiek egiteko, ikasleek plangintza, betetze, kontrol eta konpontze estrategiak erabiltzen ikasi beharko dute, eta bai diskurtso prozedurak eta ezagupen formalak ere, komunikazio egoeretarako egokiak diren testuak ulertu eta produzitzeko gauza izateko.

Atazek, eta haiekin lotura duten jarduera guztiek, ikaslea eta haren jarduna hartuko dituzte ardatz nagusi. Irakaslearen papera funtsean aurkezlearena izanen da, jardueraren bultzatzaile eta ebaluatzailearena, eta hizkuntzaren erabilera egokia gehiago balioetsiko du hizkuntzaren sistema teorikoa eta zuzentasun formala baino. Erabiliko dugun metodologiak, bada, ikasleari ataza horiek eraginkortasunez egiteko behar duen gaitasun eta trebetasuna eman beharko dizkio.

Eduki mota desberdinak modu integratuan aurkeztuko zaizkio ikasleari, ulermen, adierazmen, elkarreragin, bitartekotza eta haien konbinazioen barrenean. Hizkuntza hutseko edukiak komunikaziorako garraiabide dira. Gramatika eta lexikoa erabiltzea, ikuspuntu honetan, helburu horretarako tresna da, ahal den neurrian arauak indutitzea erabiliz.

Era berean, gaitasun soziolinguistiko eta pragmatikoak beti atazen bidez bereganatu beharko dituzte. Ataza horietan material benetakoak erabiliko dira, ikasleek kasuko kulturaren erabilera eta ezaugarriekin kontaktu zuzena eduki dezaten.

Gramatika gaitasunak ebaluatzeko, komunikazio errealeko eta testuinguru batean jarritako egoerak erabiliko dira beti. Hutsak tarteko hizkuntza gisa onartzen dira, eta sistematikoak direnean baizik ez dira kontuan hartuko edo komunikazioari traba egiten diotenean: hutsa aztertzeak ikasleak bere jardunaren gainean gogoeta egin eta hobetzeko balio du.

Ikaslearengan bere gaitasun berezkoak ez ezik, bere buruz ikasteko behar dituen ikasketa estrategiak ere garatu beharko dira.

Hizkuntzaren erabilera egokia bultzatzeko irakasleak hainbat ikasketa esperientzia aurkeztuko ditu. Haietan:

- Ikasten den hizkuntza mintzatzen den kulturenganako interesa eta sentsibilitatea sustatuko dira.
- Ikasleak komunikatzeko bere buruarengan behar duen konfiantza bultzatuko da.
- Ikasgelan ikasteko motibazioa handituko da eta
- Nork bere kabuz ikasteko gaitasuna garatuko du.

Probaren egitura

Trebetasuna	Iraupena	Atal kopurua	Luzera	Puntuak
CE	40 min	3	5+5+5	15
CO	25 min	3	5+5+5	15
EE	45 min	2	50-70 hitz 100-120 hitz	20
EO	15 min	2	2-3 min bakar. 3-4 min elkar.	20

Probaren iraupen orokorra:

- Idatzizko atala: 125 minutu
- Ahozko atala: 15 minutu

Ebaluazioa

MAILA	TREBETASUNA	GEHIENEZKO PUNTUAZIOA	GUTXIENEKO PUNTUAZIOA	Gutxienekoa gainditzeko
A2	Irakurriaren ulermena	15	% 50	% 60
	Entzunaren ulermena	15	% 50	
	Idazmena	20	% 50	
	Mintzamena	20	% 50	
	OSOTARA			